

Eskola berria



Gontzal, Gorka, Izaskun eta Janire eskolara doaz. Gaur lehen eguna da eta oso pozik daude. Bidean Gorka eta Gontzal hitz egiten ari dira.

- Kaixo, Gontzal! – dio Gorkak.
- Kaixo, Gorka! Zer moduz zaude? – erantzuten du Gontzalek.
- Ni oso ondo, eta zu? – dio Gorkak.
- Ni ere bai – erantzuten du Gontzalek.

Eskola berria da eta gure lagunek ikusi nahi dute.

- Goazen eskola berria ikustera! – dio Gorkak.

Eskolan sartu dira eta han jende asko dago: maisuak, andereñoak...

Pasilora joan dira eta Gontzalek ez du aulki bat ikusi eta plaff!

- Ha, ha, ha! Oso lodia zara zu! – dio Izaskunek.

Janire barrez dago eta, nahi gabe, kolpe bat eman dio Gorkari.

- Kontuz! Liburuak! – esaten du Gorkak.

Liburuak Gorkaren oinean erori dira. Gorka oihukatzen ari da eta Janirek esaten dio:

- Ixilik, mesedez. Liburutegi barruan andereño bat dago.


Gure lagunek eskola ikusten jarraitzen dute, baina bapatean ahots bat entzuten dute:

- Sartu barrura, sartu barrura.

Umeak sartu dira eta hezurdura bat ikusi dute... hitz egiten!

Orduan, beldurrez, argia piztu dute eta barre egiten dute. Nolako sustoa!

Laborategiaren barruan loro bat hitz egiten ari da.



Eskola berria

Eman erantzuna galdera hauei:

1.- Nortzu doaz eskolara?

2.- Zer egun da gaur?

3.- Nolakoa da eskola?

4.- Zer ikusi nahi dute lagunek?

5.- Zer ez du ikusi Gontzalek pasiloan?

6.- Nolakoa da Gontzal?

7.- Nola dago Janire?

8.-Non erori dira liburuak?

9.-Zertan ari da Gorka?

10.-Nor dago liburutegi barruan?

11.-Zer entzuten dute bapatean?

12.-Nor hitz egiten ari da laborategiaren barruan?

Eskola berria (Hiztegia)

Liburutegia		Altua	
Laborategia		Baxua	
Koaderno		Berria	
Artaziak		Zaharra	
Arbela		Lodia	
Klariona		Argala	
Izena		Jatorra	
Lapitza		Hasi	
Maisua		Bukatu	
Irakaslea		Irakurri	
Andereñoa			
Ilehoria			
Beltzarana			

Ama begira zazu

Ama begira zazu
leihotik plazara
ni bezalakorikan
plazan ba ote da.
Tra la, la, ra
plazan ba ote da.

Begiak erne ditut
bi zangoak arin
hainbeste doainekin
ez nago mutxurdin.
Tra la, la, ra
Ez nago mutxurdin

Atzo nik eman nizun
musu bat begian
orain zuk emaidazu
beste bat masailan.
Tra la, la, ra
beste bat masailan

Atzo eman zenidan
musu bat begian.
orain emango dizut
beste bat masailan.
Tra la, la, ra
beste bat masailan.

